

PRIINTZIPIO - ADIERAZPENA, EMAKUMEENGANAKO INDARKERIA ETA SEXU-JAZARPENA DESAGERRARAZTEKO

Kirolean gertatzen den sexu-jazarpena eta abusua emakumeenganako indarkeria mota da, eta funtsezko eskubideak larri urratzen ditu, hala nola, duintasuna, osotasun fisikoa eta morala, eta sexu-askatasuna. Gainera, oztopo nagusietako bat da emakume eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko.

Indarrean dagoen legeriaren arabera, aipatutako giza eskubideak besteren ezinak dira. Kirol arloan, Nazioarteko Olinpiar Batzordeak, Kirolean izaten den Sexu-Jazarpenari eta Abusuari buruzko Akordio-Adierazpenaren bidez, kirolarien osasuna nahiz babesaren hobetzea defendatzen du, eta kirola eraldatu nahi du seguruagoa eta osasungarriagoa izan dadin.

Horregatik guztiagatik, sinatzaileok, (taldea / federazioa / ikastetxea, etab.)-ren izenean, ~~EU.S.K.A.D.I.K.O. ARK.U.T.I.R.O. FEDERAZIUNA~~ ^{UAF} alimo eta zorrotz adierazten dugu ez dugula inola ere onartuko emakumeenganako indarkeria geure erakundeetan.

Berdintasunari eta emakumeenganako indarkeriari buruzko legerian oinarrituta, eta kontuan hartuta kirolariak eskubidea dutela kirol ingurunean sexu-jazarpenik eta abusurik gabe jarduteko, geure egiten ditugu honako konpromiso hauek:

- Geure jarduera-eremuan hainbat neurri ezarriko ditugu sexu-jazarpena eta abusua prebenitzeko, eta gertatuz gero, jarduteko.
- Neurriak kirol erakundeari lotutako pertsonen zabalduko zaizkiela bermatuko dugu.
- Kirol erakundeari lotutako pertsona, enpresa, entitate eta instituzio guztiek konpromisoaren berri izaten saiatuko gara, eta emakumeenganako indarkeria prebenitzeko eta desagerrarazteko inplikazioa ager dezaten ere saiatuko gara.
- Baliabide guztiak erabiliko ditugu aurkeztutako erreklamazio eta salaketak lehenbailehen eta efikaziaz konpontzeko.
- Parte hartuko dugu eta laguntza emango dugu kirolean emakumeenganako indarkeria eta sexu-jazarpena desagerrarazteko prestakuntza egiteko.

Neurri horiei guztiei esker, kirol jarduera guztiak indarkeriarik gabeko errespetuzko ingurunean egingo dira. Horrela, bermatuta egongo da emakumeen osasuna eta ongizatea, eta, beraz, entitate osoaren mesedetan izango da.

